

1.

Porrot sentimental bat bizitzen badugu, gaixotasunen bat diagnostikatzen badigute, maite genuen norbait hiltzen bazaigu, hizkuntza motz geratzen zaigu, ezin dugu gertatutakoa bere betean adierazi. Hala ere, kontatzeko premia dugu, gertatu zaiguna komunikatu nahi genuke. Eta bertsio bat elaboratzen dugu, kontakizun bat antolatzen dugu, sentimenduak transmititzen ditugu. Hitzetan jarritakoa ez baldin bada ere gertatu zitzaiguna, hitzak aterpe bat ematen dio gertatu zitzaigunari, mugatu egiten du hizkuntzaren hormetan, zentzua ematen dio, eta errealitatearen ertz berriak, ikusi ez genituenak —imajinatu ere egiten ez genituenak— aurkitzen ditugu pasioan, pasioa hitzetan jartzen badugu; sufrimenduan, gure saminaren berri ematen badugu; gozamenean, gure poza manifestatu ezker.

2.

Zuri, nobelari izena ematen dion pertsonaiari, pankreako minbizia diagnostikatu ziotenean Zuren senarra, idazlea bera, apunte batzuk idazten hasi zen. Hasiera bateko zirriborroak haserrerearen espresio ziren, barruarintze bat, kabitu-ezina manifestatu beharrak eragindako jarduna. Zuri diagnostikatutako gaitza oso larria zen, bizi-iraupeneko espektatibak laburrak zituena, eta etorkizuna oso beltz ikusten zuten bai Zuk, bai senarrak. Zuren gaixotasuna onartzen hasi ahala, senarrak idazten segitu zuen, baina oraingoan gaixotasuna asumitu nahian, gaixotasunak beren bizitzan zuen tokia ulertu nahian. Gaixotasuna ez da ba bizitzaren parte bat? Eta bizitzaren parte bat baldin bada, osasuntsuena ez al da etorritakoa onartu eta esperientzia berria bizitzaren perspektibatik begiratzea, *hil artean bizi!* esaldi ezagunaren bidetik? Hil artean bizi! Bizi, borroka egin gaitzari, gaixotasunak dakartzan esperientziak zentzuz betetzen saiatu, etsipenari aurre egin. *Ars moriendi* etsipenezko baten atzaparretan erori orde, *ars vivendi* ahalik emankorrena garatzen saiatu. Egunean egunekoa betetzen saiatu, oparitzat hartu egun bakoitza, eguna zukutu limoia zukutzen dugun bezala...

3.

Idazlea da Zuren senarra, gaur aurkezten ari garen liburuko narratzailea. Idazlea naiz ni ere, eta orain hiru urte pankreako minbizia diagnostikatu zioten nire emazteari. Apunte batzuk idazten hasi nintzen ni, hasieran

desahogo gisa, gero gertatzen zitzaiguna ulertzeko ahaleaginean. Hasiera bateko zirriborroak haserrerearen espresio ziren, barru-arintze bat, kabitu-ezina manifestatu beharrak eragindako jarduna. Emazteari diagnostikatutako gaitza oso larria zen, bizi-iraupeneko espektatibak laburrak zituen, eta etorkizuna oso beltz ikusten genuen. Emazteak eta biok gaixotasuna onartzen hasi ahala, idazten segitu nuen, baina oraingoan gaixotasuna asumitu nahian, gaixotasunak gure bizitzan duen tokia ulertu nahian.

4.

Hasiera hartako apunteetan laster hasi nintzen Zu deitzen bertako protagonistari. Aparteko kalkulurik gabe egindako hautamena zen. Batetik, Zu esanda, *beste* den baten izaera jasotzen nuen; ni ez naizen, baina oso hurbil daukadan norbaiten existentzia. Bestetik, Zu izen berezi gisa erabiliz, izenaren erabilera bitxi bat lortzen nuen: Zuk esan dio, Zuren ustez, Zuri asko gustatzen zitzaion... Ez nintzen ohartu Zu horretan sartzen eta kabitzen direla emakume minbizidunak ere, partikularitasunetik orokortasun halako batera egiten nuela txango, Zu izenak Itziar edo Pilar esanda ez bezala egiten zuela aurrera, izen guztien batura zela...

5.

Zu senarraren ikuspegitik ikusia dago. Baina senarra idazlea da. Horra bi begirada: senarrarena eta idazlearena. Batzuetan bat egiten dute biek, beste batzuetan ez hainbeste. Eta momentu batean pentsatu nuen liburuak on zukeela bi begiradak desberdintzea: batetik, senarra, lehendabiziko pertsona erabiliz, Zugandik hurbil; bestetik, idazlea, senarrak baino begirada neutroagoa duena, hirugarren pertsonan mintzatzen dena, distantiago begiratzen diona bizitzen ari diren egoerari. Sentimenduetatik hurbil dago senarra, pentsamenduaren errotari eragiten dio idazleak. Eta irakurri egiten du, gure gaurko munduan eta literaturan gaitzek, sufrimenduak, heriotzak duten tokia aztertzen du.

Bi begirada, bi egiteko. Eta, halaber, ohartu nintzen testuak beste erritmo bat hartzen zuela, bi ahots deberdin erabiltzearen kausaz.

6.

Ezagutzen gaituenak arrasto autobiografikoak bilatu nahiko ditu liburuan. Liburuan emanak daude, simulazio gutxi dago. Ez da erraza izan eta ez da erraza izaten ari: aitortza egitea erabakitzen denean, narrazioak

diskrezioaren eta diskrezio-faltaren ibaiertzetako korrontean egiten du bere nabigazioa.

Liburuko eszenak gertatutakoak dira, baina ez dira inolaz ere gertatu ziren bezalakoak, ez dira dokumental bateko irudiak, gerora eraikitakoak baizik, eszena bat baino gehiago gertatutako egun berean idatzia badago ere. Gertakariak ez daude beren biluzian emanak: gertakari horiek eragindako erreakzioak, gertakarien zentzua geureganatzeko modua, hori guztia dago elaborazioan.

Baina kontatzen den istorioa Zurena da, Zuren egia liburuan bilatu behar da, liburuan dago ino egotekotan. Bertan kontatzen dena guri gertatu ez balitzaigu ere, liburuko egiari berdina zaio, ondo funtzionatzen baldin badu.

7.

Hiru lagun min izan ditut bidaide, hirurak aspaldiko irakurketetatik liburu honetara ekarritakoak: Thomas Mann, Albert Camus, Susan Sontag. Izan ditut lagun gehiago ere bidaide: Imanol Zurutuza, Joxe Aranzabal, Simone de Beauvoir, Sándor Márai, Kenzaburo Oé...

Munduak nola begiratzen dio sufrimenduari? Eta literaturak?

Modernitateak heriotza uxatu du etxetik, bizitzatik. Telebistatik eta zinetik datozkigun heriotzak benetako heriotza, fisiko-biologikoa, uxatzeko eskapularioak dira.

Tanatorioak, heriotza urrutiratzeko, despertsionalizatzeko, ezkutatzeko ez-leku horiek...

8.

Obra bat gorabehera autobiografikoetan oinarritua baldin badago, obrak autorearen bizi-esperientziatik hartzen baldin badu arnasa, autorearen gorabehera intimoetan jartzen baldin badu fokoa, narrazioa fragmentatu egiten da, zatitu, kolpeka funtzionatzen du, sentimenduen ziztadak flash moduko batzuk dira, eta haien antolamendua da idazlearen zeregina, fragmentoen arteko loturatik sekuentzia narratzaile bat harilkatzea.

Fragmento bakoitzak batasuna du, tesela baten modukoa da, baina tesela guztiek mosaiko bat osatzea dute helburu.

Bizitza ez da nobeletakoa bezalako hari narratibo koherente etenik gabe bat.

Sufrimenduzko istorio bat kontatzen bada, sufrimenduak kolpeak ditu, erpinak, eta sufrimendurik gabeko denbora luzeak ahazten ditu.

9.

Sufrimenduak fokalizatu egiten du arreta: zein hagineta den *mina*, *han* da *mihina*

Ars vivendi ala ars moriendi? Nobelak bizitzaren artea, bizitzeko gogoia, sufrimenduaren erdia ere bizitza bilatzea aldarrikatzen du, eta ez etsipena. Bizitza da asmatu den gauzarik onena. Bizitzaren poza bizi.

Liburu batek ez du, bere osoan, egia literala jasotzen, obrak osatu nahi duen eta irakurleari eskaini nahi dion elaborazio bat da liburua. Kasu honetan, sufrimendua ardatz duen kontakizun bat eman nahi du nobelak. Sufrimendua eta, azken finean heriotza, bizitzaren peaje bat da. Eta sufrimendua ere bizitzen ikasten da —ikas daiteke— mugako egoeretan. Bizi garen bitartean bizitzak beti ditu zorionerako aukerak, horien atzetik ari da Zu gaitzaren erdian. Gaitza gainditu, eta gaitza gainditzerik ez baldin badago, gaitza duintasun handienaz eramaten ahalegindu, eta Zuk zorion momentuak babestu nahi ditu kandelaren argia eskuarekin babestu dugun bezala haizetean denean.

10

Imajinazioa eta memoria, horra bi tresna inportante narratzaile batentzat. Baina ezin dira hain erraz banatu, ez dira departamendu estankoak. Idazleak imajinazioa darabil; historiagileak, datu zehatzak; kazetariak, gertatutakoa; autobiografia egiten duenak, memoria...

Ederki, ondo ulertzen da banaketa.

Baina kontakizuna ardatz duen obra literario batean beti daude presente, nahiz dosi desberdinetan, imajinazioa, datu zehatzak edo manipulatuak, inoiz gertatu zena, memoria... Elementu heterogeneoen dosi desberdinen nahasketak desberdintzen ditu obrak. Nireak autobiografia du oinarri, bai, guri gertatutako elementuekin eta guri gertatuak eragindako sentimenduekin jotzen du imajinatutakoekin baino gehiago. Noski, imajinazioak eta errekreazioak ere badute tokia, eta liburuak asko zor dio narratzailearen memoriari ere, eta hori guztia, gainera, hausnarketaren galbahean iragazita dago...

Mundua —mundu pertsonala, gaur aurkezten ari garen liburuaren kasuan— hitzekin eta hitzetan ordenatzen denean, mundua aldatu egiten da. Nahita nahi ez.

Guri bi aldiz aldatu zaigu bizitza, edo, nahiago baa, bi modutara. Diagnostikoa eman zigutenean. Eta gertatzen ari zitzagunarekin liburua forma hartzen hasi zenean, liburuaren ispiluan begiratzen hasitakoan.

8. Inoren testigantza ez da garrantzitsua literarioki, gurea ere ez, ez baldin bada kasu pertsonalak izaera orokor bat ilustratzeko balio dezan.

Bernard Shawek zioen bezala, bere buruaz eta bere garaiaz hitz egiten duenak, mundu osoaz eta garai guztiez hitz egiten du.

